ZIZURKILGO UDALA

2026IKIE0002

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA /
PLIEGO DE CLAUSULAS TECNICAS

I. KONTRATUAREN XEDEA / OBJETO DEL CONTRATO

II. KONTRATUAREN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DEL CONTRATO

III. KONTRATUAREN EPEA / PLAZO DE EJECUCIÓN

IV. KONTRATUAREN BALDINTZA GEHIGARRIAK / CONDICIONES ADICIONALES DEL CONTRATO

V. TEKNIKARIAK IZENDATZEA / NOMBRAMIENTO DE TÉCNICOS

VI. AZPIKONTRATAK ETA HORNITZAILEAK / SUBCONTRATAS Y SUMINISTRADORES

VII. BAIMENAK ETA LIZENTZIAK / PERMISOS Y LICENCIAS

VIII. IKUSKAPENAK ETA BISITAK / INSPECCIONES Y VISITAS

IX. BALIABIDE LAGUNGARRIAK / MEDIOS AUXILIARES

X. LAN EREMUAREN ANTOLAKETA / ORGANIZACIÓN DE LA ZONA DE TRABAJO

XI. INSTALAZIOAK ETA AZPIEGITURAK / INSTALACIONES E INFRAESTRUCTURAS

XII. MARTXAN JARTZEA, ARGIZTAPENAREN PROGRAMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA / PUESTA EN SERVICIO, PROGRAMACIÓN DEL ALUMBRADO, FORMACIÓN Y ASISTENCIA

XIII. SEGURTASUNA ETA OSASUNA / SEGURIDAD Y SALUD

XIV. HONDAKINEN KUDEAKETA / GESTIÓN DE RESIDUOS

ZIZURKILGO UDALA

2026IKIE0002

PEDRO MARIA OTAÑO HERRI ESKOLAKO BABES-KOADRO OROKORRA ETA BIGARREN MAILAKO KOADROAK ORDEZKATZEKO ETA ARGIZTAPENA EGOKITZEKO OBRAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN, MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO, DE LAS OBRAS DE SUSTITUCIÓN DEL CUADRO GENERAL DE PROTECCIÓN Y CUADROS SECUNDARIOS Y ADECUACIÓN DE ILUMINACIÓN EN PEDRO MARIA OTAÑO HERRI ESKOLA DE ZIZURKIL**

I. KONTRATUAREN XEDEA	**I. OBJETO DEL CONTRATO**
Kontratu honen xedea da jarraian adierazitako proiektuan aurreikusitako esku-hartzea gauzatzea, Zizurkilgo Udaleko Zerbitzu Teknikoek idatzitako baldintza-agiri hau eta proiektua oinarri hartuta.	El objeto del contrato es ejecutar la intervención prevista en el proyecto que se indica a continuación, de acuerdo con dicho proyecto y con el presente pliego redactado por los Servicios Técnicos del Ayuntamiento de Zizurkil.
Proiektua: PEDRO MARIA OTAÑO HERRI ESKOLAKO BABES-KOADRO OROKORRA ETA BIGARREN MAILAKO KOADROAK ORDEZKATZEKO ETA ARGIZTAPENA EGOKITZEKO MEMORIA DESKRIBATZAILEA. - Idazlea: Iñigo Vallejo Inchausti, Industria Ingeniari Teknikoa. - Sustatzailea: Zizurkilgo Udala.	Proyecto: MEMORIA DESCRIPTIVA PARA LA SUSTITUCIÓN DEL CUADRO GENERAL DE PROTECCIÓN Y CUADROS SECUNDARIOS Y ADECUACIÓN DE ILUMINACIÓN EN PEDRO MARIA OTAÑO HERRI ESKOLA DE ZIZURKIL. - Redactor: Iñigo Vallejo Inchausti, Ingeniero Técnico Industrial. - Promotor: Ayuntamiento de Zizurkil.
Jarduketaren kokapena: Pedro Maria Otaño Herri Eskola, Pagamuño auzoa, z/g, 20159 Zizurkil (Gipuzkoa).	Situación de la intervención: Pedro Maria Otaño Herri Eskola, barrio Pagamuño, s/n, 20159 Zizurkil (Gipuzkoa).
Esku-hartzea proiektuan zehaztutako eraikinaren eta instalazioen eremura mugatzen da. Hala ere, proiektatutako instalazioak behar bezala gauzatzeko ezinbestekoak diren lotura, egokitzapen eta osagarri-lanak ere kontratuaren barruan sartuko dira, betiere proiektuaren eta aurrekontuaren esparruan.	La intervención se circunscribe al edificio y a las instalaciones definidos en el proyecto. No obstante, se entenderán incluidos los trabajos auxiliares de conexión, adaptación y remate que resulten imprescindibles para la correcta ejecución de las instalaciones proyectadas, dentro del alcance y presupuesto del proyecto.
Proiektuan jasotako lan nagusiak hauek dira:	Los principales trabajos contemplados en el proyecto son:

- Koadro elektriko orokorra ordezkatzea. - Proiektuan aurreikusitako koadro sekundarioak ordezkatzea eta/edo egokitzea. - Argiztapen-instalazioa egokitzea, luminariak eta kontrol-sistemak konektatzea eta beharrezko zirkuituak antolatzea. - Instalazioaren probak, egiaztapenak eta martxan jartzea. Lan horien xehetasun teknikoak eta materialak proiektuan jasotakoaren arabera gauzatuko dira, plegu honetan errepikatu gabe.	- Sustitución del cuadro eléctrico general. - Sustitución y/o adecuación de los cuadros secundarios previstos en el proyecto. - Adecuación de la instalación de alumbrado, conexión de luminarias y sistemas de control y organización de los circuitos necesarios. - Pruebas, verificaciones y puesta en servicio de la instalación. Las características técnicas y los materiales serán los definidos en el proyecto, sin reproducirlos en este pliego.
II. KONTRATUAREN AURREKONTUA	**II. PRESUPUESTO DEL CONTRATO**
Proiektuan jasotako aurrekontua honako hau da: - Kontrata-aurrekontua (BEZik gabe): 124.161,37 € - BEZa (%21): 26.073,89 € - Aurrekontu osoa (BEZa barne): 150.235,26 €	El presupuesto del proyecto es el siguiente: - Presupuesto de contrata (IVA excluido): 124.161,37 € - IVA (21 %): 26.073,89 € - Presupuesto total (IVA incluido): 150.235,26 €
Eskaintza ekonomikoak proiektuko partida eta neurketak errespetatuko ditu. Lizitatzaileak, hala badagokio, prezio unitarioak adieraziko ditu. Eskaintzaren prezioek kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren eskulan, garraio, karga eta deskarga, baliabide lagungarri, proba, garbiketa, hondakinen kudeaketa eta gainerako gastuak barne hartuko dituzte, proiektuan aparteko partida gisa jasota ez badaude.	La oferta económica respetará las partidas y mediciones del proyecto. El licitador indicará, en su caso, los precios unitarios. Los precios ofertados incluirán la mano de obra, transporte, carga y descarga, medios auxiliares, pruebas, limpieza, gestión de residuos y demás gastos necesarios para la correcta ejecución del contrato, salvo aquellos expresamente contemplados como partida independiente en el proyecto.
Proiektuan partida oso edo aldi baterako zenbateko gisa jasotako lanak dagokien aurrekontuaren arabera baloratuko dira. Ez da onartuko proiektuko neurketak edo partidak eskaintza ekonomikoan aldatzea; antzemandako desadostasunak eskaintzarekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazi beharko dira.	Los trabajos definidos en el proyecto como unidades completas o partidas alzadas se valorarán conforme al presupuesto correspondiente. No se modificarán las partidas ni las mediciones del proyecto en la oferta económica; las discrepancias detectadas deberán indicarse en la documentación que acompañe a la oferta.
Obrak egin ahala, egindako lanak obra-	Los trabajos ejecutados se comprobarán y

zuzendaritzak egiaztatu eta ziurtatuko ditu, Udaleko zerbitzu teknikoen oniritziarekin.	certificarán conforme avance la obra por la dirección facultativa, con el visto bueno de los servicios técnicos municipales.
Prezioek barne hartuko dituzte, halaber, lanak amaitutakoan instalazioak garbi, erabilgarri eta behar bezala funtzionatzen uzteko behar diren lan osagarriak.	Los precios incluirán asimismo los trabajos complementarios necesarios para entregar la instalación limpia, operativa y en correcto funcionamiento.
Beharrezkoa izanez gero, espazioak prestatzeko lanak (estaldurak babestea eta/edo altzariak lekuz aldatzea, besteak beste) eta horiek lehengoratzea esleipendunak egingo ditu, udal-langileen gainbegiradapean, aparteko kosturik gabe.	En caso necesario, los trabajos de preparación de los espacios (protección de revestimientos y/o traslado de mobiliario, entre otros) y su reposición serán realizados por el adjudicatario, bajo la supervisión del personal municipal, sin coste adicional.
Obren ondorioz beharrezkoak diren gutxieneko garbiketa-lanak esleipendunak egingo ditu, aparteko kosturik gabe.	Las limpiezas mínimas necesarias como consecuencia de las obras serán realizadas por el adjudicatario sin coste adicional.
Beharrezkoak diren igeltserotzako eta bestelako laguntza-lanak kontratuaren prezioan sartuta daude.	Los trabajos auxiliares de albañilería y demás trabajos auxiliares necesarios están incluidos en el precio del contrato.
Exekuzio-proiektuak aurrekontu xehatua jasotzen du, elementu bakoitzaren neurketak eta lanen banaketa adierazita. Lanak proiektuarekin, neurketekin eta planoekin bat etorriz egingo dira.	El proyecto de ejecución contiene un presupuesto detallado, con las mediciones de cada elemento y la distribución de los trabajos. La ejecución se ajustará al proyecto, sus mediciones y planos.
Aurrekontuko prezioek gastu orokorrak, garraioa, karga eta deskarga, muntaketarako beharrezko baliabide osagarriak edo jasotzeko baliabideak, probak eta saiakuntzak, zeharkako kostuak, dokumentazio teknikoa, hondakinen kudeaketa eta segurtasun- eta osasun-neurriak barne hartzen dituzte, bai eta kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren gainerako gastuak ere.	Los precios del presupuesto incluyen los gastos generales, transporte, carga y descarga, medios auxiliares o de elevación necesarios para el montaje, pruebas y ensayos, costes indirectos, documentación técnica, gestión de residuos y medidas de seguridad y salud, así como los demás gastos necesarios para la correcta ejecución del contrato.
Ordainketak kontratuan eta aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera egingo dira.	Los pagos se efectuarán conforme a lo establecido en el contrato y en la normativa aplicable.
III. KONTRATUAREN EPEA	**III. PLAZO DE EJECUCIÓN**

Obrak gauzatzeko epea eta egutegia funtsezko baldintza dira. Esku-hartze fisikoak ikastetxeko udako etenaldian egin beharko dira, ekainaren 20tik irailaren 1era bitartean, eta instalazio osoa irailaren 1a baino lehen amaituta, egiaztatuta eta martxan egon beharko da. - Lanak egiteko aldia: ekainaren 20tik abuztuaren 1era. - Amaierako mugaeguna: irailaren 1a, egun hori barne hartu gabe; egun horretarako lan guztiak amaituta egongo dira.	El plazo y el calendario de ejecución constituyen una condición esencial del contrato. Los trabajos materiales deberán realizarse durante el periodo de interrupción estival del centro escolar, entre el 20 de junio y el 31 de agosto, y la instalación completa deberá estar terminada, verificada y en funcionamiento antes del 1 de septiembre. - Periodo de ejecución material: del 20 de junio al 1 de septiembre. - Fecha límite: antes del 1 de septiembre; para esa fecha deberán estar finalizados todos los trabajos.
Lizitatzaileak eskaintzarekin batera lanen kronograma aurkeztuko du. Kronogramak gutxienez materialak eskatzeko eta jasotzeko epeak, lan-faseak, koadroak ordezkatzeko eta argiztapena egokitzeko jarduketak, probak eta martxan jartzea jasoko ditu.	El licitador presentará con su oferta un cronograma de los trabajos que incluya, como mínimo, los plazos de pedido y recepción de materiales, las fases de obra, las actuaciones de sustitución de cuadros y adecuación del alumbrado, las pruebas y la puesta en servicio.
Esleipendunak beharrezko hornidurak eta prestaketa-lanak garaiz antolatu beharko ditu, ezarritako epea bete ahal izateko. Ez da onartuko materialak eskatzeko, fabrikatzeko edo hornitzeko atzerapenak amaiera-data aldatzeko arrazoi gisa erabiltzea, atzerapen hori Udalari egotz dakiokeen kasuetan izan ezik eta kontratu-araudiaren arabera.	La empresa adjudicataria deberá organizar con antelación los suministros y trabajos preparatorios necesarios para cumplir el plazo establecido. Los retrasos en el pedido, fabricación o suministro de materiales no justificarán por sí solos la ampliación de la fecha final, salvo en los supuestos imputables al Ayuntamiento y conforme a la normativa contractual.
Lanak hasi aurretik, esleipendunak kronograma zehatza aurkeztu beharko du Udaleko zerbitzu teknikoen oniritzia jasotzeko. Kronogramak ez du ezarritako azken eguna aldatuko.	Antes del inicio de los trabajos, el adjudicatario presentará un cronograma detallado para su aprobación por los servicios técnicos municipales. Dicho cronograma no podrá alterar la fecha límite establecida.
Ikastetxearen funtzionamenduari edo bestelako erabilerei eragin diezaiekeen edozein jarduketa Udalarekin koordinatuko da. Instalazioak segurtasunez erabili ahal izateko moduan entregatuko dira.	Cualquier actuación que pueda afectar al funcionamiento del centro o a otros usos deberá coordinarse con el Ayuntamiento. Las instalaciones se entregarán en condiciones de utilización segura.

Epea ez betetzeari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta kontratuan ezarritakoa aplikatuko da.	El incumplimiento del plazo se regirá por lo dispuesto en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, y en el contrato.
IV. KONTRATUAREN BALDINTZA GEHIGARRIAK	**IV. CONDICIONES ADICIONALES DEL CONTRATO**
PROGRAMAZIOA	**PROGRAMACIÓN DE LOS TRABAJOS**
Esleipendunak lanen programazio zehatza aurkeztu beharko du esku-hartzea hasi aurretik. Programazioak faseak eta fase bakoitzaren aurreikusitako iraupena jasoko ditu, baita fase horiei dagozkien data zehatzak ere. Programazioak udaleko zerbitzu teknikoen oniritzia izan beharko du obrak hasi aurretik.	El adjudicatario deberá presentar una programación detallada de los trabajos antes del inicio de la intervención. La programación incluirá las distintas fases, la duración prevista de cada una y las fechas concretas correspondientes. Deberá contar con el visto bueno de los servicios técnicos municipales antes del comienzo de las obras.
Programazioaren helburua da lanek ikastetxearen funtzionamenduan eta noizbehinkako bestelako erabileretan eragin ditzaketen eragozpenak eta gorabeherak ahalik eta gehien murriztea. Horretarako, material-hornidurak, koadro elektrikoetako esku-hartzeak, zerbitzu-eteteak eta instalazioa berriz martxan jartzeko uneak koordinatuko dira.	La programación tendrá por objeto reducir al máximo las molestias e incidencias que los trabajos puedan ocasionar en el funcionamiento del centro y en otros usos ocasionales. A tal efecto, se coordinarán los suministros de material, las intervenciones en los cuadros eléctricos, las interrupciones del servicio y los momentos de reposición de la instalación.
Beharrezkotzat jotzen bada, esleipendunak eskaintzan aurkeztutako gauzatze-proposamena eta instalazioen konfigurazioa zehaztu edo egokitu beharko ditu, proiektua eta kontratuaren xedea errespetatuz eta Udaleko zerbitzu teknikoekin adostuta.	Cuando se considere necesario, el adjudicatario deberá concretar o ajustar la propuesta de ejecución y la configuración de las instalaciones presentada en su oferta, respetando el proyecto y el objeto del contrato y de acuerdo con los servicios técnicos municipales.
DOKUMENTAZIOA	**DOCUMENTACIÓN**
Lanak amaitutakoan, esleipendunak egindako lanen memoria-laburpena aurkeztuko du, instalatutako ekipoen eta egindako jarduketen deskribapenarekin. Memoriak, hala dagokionean, koadro elektrikoen eskemak,	Una vez finalizados los trabajos, el adjudicatario presentará una memoria-resumen de las actuaciones realizadas y una descripción de los equipos instalados. La memoria incluirá, cuando proceda, los

zirkituen identifikazioa, egiaztapen eta proben emaitzak eta instalazio elektrikoaren arduradun den enpresa gaitzaileak sinatutako dokumentazioa jasoko ditu.	esquemas de los cuadros eléctricos, la identificación de los circuitos, los resultados de las comprobaciones y pruebas, y la documentación suscrita por la empresa habilitada responsable de la instalación eléctrica.
Era berean, aplikagarriak diren arauzko egiaztapenak eta ziurtagiriak aurkeztuko dira, eta instalazioak proiektuan eta indarreko araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko da. Dokumentazioa euskarri digitalean emango da, Udaleko zerbitzu teknikoek eskatzen duten antolamenduarekin.	Asimismo, se aportarán las verificaciones y certificados reglamentarios que resulten aplicables, y se acreditará que la instalación cumple las condiciones establecidas en el proyecto y en la normativa vigente. La documentación se entregará en soporte digital y con la organización que indiquen los servicios técnicos municipales.
V. TEKNIKARIAK IZENDATZEA	**V. NOMBRAMIENTO DE TÉCNICOS**
Lizitatzaileak esku-hartzean zuzenean parte hartuko duten teknikariak identifikatuko ditu, eta haien eginkizunak eta antolaketa azalduko ditu.	El licitador identificará al personal técnico que intervendrá directamente en la actuación e indicará sus funciones y organización.
Esleipendunak obra-arduradun bat izendatuko du, Udaleko zerbitzu teknikoekiko harremanetarako pertsona izango dena. Pertsona horrek lanen izaerari dagozkion gaitasun eta esperientzia izango ditu, eta lan-orduetan eskuragarri egongo da.	El adjudicatario designará una persona responsable de obra que actuará como interlocutora con los servicios técnicos municipales. Dispondrá de la capacidad y experiencia adecuadas a la naturaleza de los trabajos y estará localizable durante el horario de obra.
Obran parte hartzen duten langileek beren zereginei dagozkien prestakuntza eta gaikuntza izango dituzte. Instalazio elektrikoak dagokion baimena duen enpresak eta langile gaituek egingo dituzte.	El personal que intervenga en la obra dispondrá de la formación y habilitación correspondiente a sus funciones. Los trabajos de instalación eléctrica serán realizados por empresa habilitada y personal cualificado.
Obrako arduradunak euskara-ezagutza nahikoa izango du herritarrekin edo udal-zerbitzuekin komunikatu ahal izateko. Udal Zerbitzuek euskara-maila justifikatzen duen ziurtagiria eskatu ahal izango dute.	El Responsable de Obra tendrá conocimientos suficientes de euskera para poder comunicarse con los ciudadanos o los servicios municipales. Los Servicios Municipales podrán solicitar el certificado que justifique el nivel de Euskera.
Arduraduna aldatu behar bada, Udalari aurrez	Cualquier sustitución de la persona

jakinaraziko zaio, eta ordezkoak antzeko gaitasuna izango du.	responsable deberá comunicarse previamente al Ayuntamiento, y la persona sustituta deberá contar con capacidad equivalente.
Esleipendun enpresa eta Udalaren idatzizko harremana ere (kontratuak, fakturak, etab.) euskaraz izango da, kasuan kasu salbuespenak egin eta gaztelerazko dokumentuak edo idatziak jasoko badira ere.	La empresa adjudicataria y la relación escrita del Ayuntamiento (contratos, facturas, etc.) será también en euskera, sin perjuicio de las excepciones que en su caso procedan y de la recepción de documentos o escritos en castellano.
VI. AZPIKONTRATAK ETA HORNITZAILEAK	**VI. SUBCONTRATAS Y SUMINISTRADORES**
Lizitatzaileak aurreikusitako azpikontratak identifikatuko ditu, egingo dituzten lanak adierazita. Azpikontratazioa kontratuaren eta indarreko araudiaren arabera egingo da.	El licitador identificará las subcontratas previstas e indicará los trabajos que realizarán. La subcontratación se efectuará conforme al contrato y a la normativa vigente.
Hornitzaile nagusiak eta hornitu beharreko material nagusiak identifikatu ahal izango dira. Udaleko zerbitzu teknikoek proiektuarekin bat datorren egiaztatzeko beharrezko dokumentazio teknikoa eskatu ahal izango dute.	Se podrán identificar los principales proveedores y materiales. Los servicios técnicos municipales podrán solicitar la documentación técnica necesaria para comprobar su adecuación al proyecto.
Eskaintzan adierazitako azpikontrata edo hornitzaile nagusietan aldaketak egin aurretik, Udalari jakinarazi beharko zaizkio, kontratuaren eta araudiaren arabera.	Cualquier modificación de las subcontratas o proveedores principales indicados en la oferta deberá comunicarse al Ayuntamiento con carácter previo, conforme al contrato y a la normativa aplicable.
VII. BAIMENAK ETA LIZENTZIAK	**VII. PERMISOS Y LICENCIAS**
Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak, izapideak eta egiaztapenak kudeatzea esleipendunari dagokio, kontratuaren arabera Udalaren ardura direnak izan ezik.	Corresponderá al adjudicatario gestionar los permisos, trámites y verificaciones necesarios para la ejecución del contrato, salvo aquellos que contractualmente correspondan al Ayuntamiento.
Udalak izapide jakin batzuk bere gain hartzea erabakitzen badu, alderdien artean koordinatuko dira.	Si el Ayuntamiento decide asumir algún trámite concreto, este se coordinará entre las partes.
Baimen eta izapide horiei lotutako gastuak kontratuaren prezioan sartuta egongo dira,	Los gastos asociados a dichos permisos y trámites estarán incluidos en el precio del

kontratuan bestelakorik ezartzen ez bada.	contrato, salvo que el contrato disponga otra cosa.
VIII. IKUSKAPENAK ETA BISITAK	**VIII. INSPECCIONES Y VISITAS**
Udaleko zerbitzu teknikoek obrak edozein unetan ikuskatu ahal izango dituzte, lanen segurtasuna eta egikaritze egokia egiaztatzeko.	Los servicios técnicos municipales podrán inspeccionar los trabajos en cualquier momento para comprobar su seguridad y correcta ejecución.
Obra-bilerak edo bisitak Udalak zehaztutako maiztasunarekin egingo dira; gutxienez, beharrezkoa denean eta fase kritikoetan. Esleipendunak egiaztapenetarako sarbidea eta beharrezko informazioa emango ditu.	Las reuniones o visitas de obra se realizarán con la periodicidad que determine el Ayuntamiento, al menos cuando resulte necesario y en las fases críticas. El adjudicatario facilitará el acceso y la información necesaria para las comprobaciones.
IX. BALIABIDE LAGUNGARRIAK	**IX. MEDIOS AUXILIARES**
Lanak hasi aurretik, esleipendunak erabiliko dituen baliabide lagungarriak eta babes-neurriak antolatuko ditu, eta beharrezkoa denean Udaleko zerbitzu teknikoei jakinaraziko dizkie.	Antes del inicio, el adjudicatario organizará los medios auxiliares y las medidas de protección que utilizará y los comunicará a los servicios técnicos municipales cuando proceda.
Esleipendunak beharrezko tresneria, eskailerak, plataformak eta bestelako baliabideak jarriko ditu, indarreko segurtasun-baldintzak betez eta dagozkien egiaztagiriak izanik.	El adjudicatario aportará las herramientas, escaleras, plataformas y demás medios necesarios, cumpliendo las condiciones de seguridad vigentes y disponiendo de la documentación acreditativa correspondiente.
Langileek beharrezko babes-ekipoak erabiliko dituzte, eta lan elektrikoak arrisku elektrikoak kontrolatzeko prozeduren arabera egingo dira.	El personal utilizará los equipos de protección necesarios y los trabajos eléctricos se ejecutarán mediante procedimientos que controlen los riesgos eléctricos.
X. LAN EREMUAREN ANTOLAKETA	**X. ORGANIZACIÓN DE LA ZONA DE TRABAJO**
Lan-eremua behar bezala mugatu eta seinaleztatuko da, baimenik gabeko pertsonak sar ez daitezen. Ikastetxeko beste erabiltzaile batzuek eraikinean egon behar badute, lanak eta sarbideak Udalarekin koordinatuko dira.	La zona de trabajo se delimitará y señalizará adecuadamente para impedir el acceso de personas no autorizadas. Si deben permanecer otros usuarios en el edificio, los trabajos y accesos se coordinarán con el

	Ayuntamiento.
Obrek eragindako ibilbideak eta sarbideak seguru mantenduko dira. Materialak eta hondakinak ez dira ebakuazio-bideetan edo erabilera-eremuetan pilatuko.	Se mantendrán seguros los recorridos y accesos afectados por las obras. No se almacenarán materiales ni residuos en vías de evacuación o zonas de uso.
Lan-eremuko seinaleak argiak eta egokiak izango dira, eta euskarazko informazioa izango dute, hala dagokionean.	La señalización de la zona de trabajo será clara y adecuada, e incluirá información en euskera cuando corresponda.
Esleipendunak lanak antolatuko ditu ikastetxeko jarduerari eta gainerako erabilerei ahalik eta eragozpen txikiena eragiteko.	El adjudicatario organizará los trabajos para ocasionar las menores molestias posibles a la actividad escolar y a otros usos del edificio.
Eremuen eta faseen antolaketa aurrez koordinatuko da Udalarekin. Koadro elektrikoetan eta zirkuituetan esku hartzeak aurreikusita eta kontrolatuta egingo dira, etenaldiak eta berriz konektatzeko uneak koordinatuz.	La organización de zonas y fases se coordinará previamente con el Ayuntamiento. Las intervenciones en cuadros eléctricos y circuitos se planificarán y controlarán, coordinando las interrupciones y la reposición del servicio.
XI. INSTALAZIOAK ETA AZPIEGITURAK	**XI. INSTALACIONES E INFRAESTRUCTURAS**
Instalazio elektrikoak proiektuaren arabera gauzatuko dira, lehendik dauden sareekin eta koadroekin beharrezko konexioak eginez.	Las instalaciones eléctricas se ejecutarán conforme al proyecto, realizando las conexiones necesarias con las redes y cuadros existentes.
Lanak egiteko lehendik dagoen instalazioren bat deskonektatu edo zerbitzuz kanpo utzi behar bada, esku-hartzea Udalarekin koordinatuko da, eta instalazioa segurtasunez berriz martxan jartzeko beharrezko egiaztapenak egingo dira.	Si para ejecutar los trabajos fuera necesario desconectar o dejar fuera de servicio alguna instalación existente, la intervención se coordinará con el Ayuntamiento y se realizarán las comprobaciones necesarias para su reposición segura.
Instalazioa ez da behin betiko martxan jarriko beharrezko egiaztapenak egin eta akatsak zuzendu arte. Egindako konexioak, zirkuituak eta babesak proiektuarekin eta araudiarekin bat datozela egiaztatuko da.	La instalación no se pondrá definitivamente en servicio hasta realizar las comprobaciones necesarias y corregir los defectos detectados. Se verificará la adecuación de las conexiones, circuitos y protecciones al proyecto y a la normativa.
XII. MARTXAN JARTZEA,	**XII. PUESTA EN SERVICIO,**

ARGIZTAPENAREN PROGRAMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA	PROGRAMACIÓN DEL ALUMBRADO, FORMACIÓN Y ASISTENCIA
Argiztapenaren kontrol- eta programazio-sistemak konfiguratu eta programatuko dira, proiektuan aurreikusitakoaren arabera eta Udaleko zerbitzu teknikoekin koordinatuta. Instalazioa martxan jarri aurretik, funtzionamendua egiaztatuko da eta Udalari ezarritako konfigurazioaren berri emango zaio.	Los sistemas de control y programación del alumbrado se configurarán y programarán conforme a lo previsto en el proyecto y en coordinación con los servicios técnicos municipales. Antes de la puesta en servicio se comprobará su funcionamiento y se entregará al Ayuntamiento información sobre la configuración establecida.
Esleipendunak gutxienez bost (5) orduko prestakuntza praktikoa emango die Udalak izendatutako langileei. Prestakuntzak argiztapenaren ohiko erabilera, programazioaren eta konfigurazioaren kudeaketa, eta oinarrizko gorabeheren identifikazioa hartuko ditu barne. Prestakuntza kontratuaren prezioan sartuta egongo da.	El adjudicatario impartirá al personal designado por el Ayuntamiento una formación práctica de, al menos, cinco (5) horas. Incluirá el uso habitual del alumbrado, la gestión de su programación y configuración y la identificación de incidencias básicas. Esta formación estará incluida en el precio del contrato.
Harrera-akta sinatzen den egunetik urtebetez, esleipendunak Udalak instalazioari buruz planteatzen dituen kontsultei erantzungo die, eta argiztapenaren programazioan edo konfigurazioan behar diren doikuntza eta aldaketa txikiak egingo ditu, aparteko kosturik gabe, baldin eta instalatutako ekipoen eta kontratuaren xedearen barruan badaude. Material berriak hornitzea, ekipoak ordezkatzea edo kontratuaren hasierako irismena handitzea dakarten jarduketak ez dira betebehar horretan sartuko, salbu eta kontratistari egotz dakiokeen akats edo ez-betetze bat zuzentzeko beharrezkoak badira.	Durante el año siguiente a la firma del acta de recepción, el adjudicatario atenderá sin coste adicional las consultas del Ayuntamiento relativas a la instalación y realizará los ajustes o pequeños cambios necesarios en la programación o configuración del alumbrado, siempre que estén comprendidos en los equipos instalados y en el objeto del contrato. Quedan excluidas de esta obligación las actuaciones que requieran suministrar nuevos materiales, sustituir equipos o ampliar el alcance inicial del contrato, salvo que sean necesarias para corregir defectos o incumplimientos imputables al contratista.
Programazioaren ezarpenak, erabilera-jarraibideak eta prestakuntzan emandako dokumentazioa euskarri digitalean emango dira, Udalak eskatutako formatuan.	Los parámetros de programación, las instrucciones de uso y la documentación entregada durante la formación se facilitarán en soporte digital y en el formato solicitado por el Ayuntamiento.
XIII. SEGURTASUNA ETA OSASUNA	**XIII. SEGURIDAD Y SALUD**
Lanak hasi aurretik, aplikatu beharreko	Antes del inicio de los trabajos se determinará

araudiaren arabera eska daitekeen prebentzio-dokumentazioa zehaztu eta prestatuko da. Esleipendunak Prebentziozko Kudeaketaren Dokumentua edo Segurtasun eta Osasun Plana egingo du. Dokumentazioa segurtasun- eta osasun-koordinatzailearen esku jarriko da, hark berrikus dezan eta legez dagozkion jarduerak egin ditzan. Ezin izango dira lanak hasi harik eta prebentziozko baldintzak eta lantokia ireki dela jakinarazteko baldintzak bete arte.	y preparará la documentación preventiva que resulte exigible conforme a la normativa aplicable. El adjudicatario elaborará, el Documento de Gestión Preventiva o el Plan de Seguridad y Salud. La documentación se pondrá a disposición del coordinador de seguridad y salud para su revisión y para las actuaciones que legalmente le correspondan. No podrán iniciarse los trabajos hasta que se hayan cumplido los requisitos preventivos y de comunicación de apertura del centro de trabajo que resulten exigibles.
Esleipendunak laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta obretako segurtasun- eta osasun-betebeharrak beteko ditu. Instalazio elektrikoetan tentsiorik gabeko lanak lehenetsiko dira, eta berriz konektatu aurretik segurtasun-baldintzak egiaztatuko dira.	El adjudicatario cumplirá la normativa de prevención de riesgos laborales y las obligaciones de seguridad y salud aplicables a las obras. En los trabajos eléctricos se priorizará trabajar sin tensión y se comprobarán las condiciones de seguridad antes de la reconexión.
XIV. HONDAKINEN KUDEAKETA	**XIV. GESTIÓN DE RESIDUOS**
Esleipendunak obretan sortutako hondakinak bereizi, bildu eta behar bezala kudeatuko ditu. Udalak berrerabiltzeko eskatu ditzakeen elementuak haren esku utziko dira; gainerako hondakinen kudeaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da.	El adjudicatario separará, recogerá y gestionará correctamente los residuos generados. Los elementos que el Ayuntamiento solicite conservar para su reutilización quedarán a disposición municipal; se aportará documentación acreditativa de la gestión de los restantes residuos.
Esleipendun enpresak indarrean dagoen 105/2008 Errege Dekretuak eta 112/2012 Dekretuak jasotako hondakinak sortu eta kudeatzeko araudia bete beharko du.	La empresa adjudicataria deberá cumplir la normativa de producción y gestión de residuos establecida en el vigente Real Decreto 105/2008 y en el Decreto 112/2012.

Sinatzailea: **Firmante:**	UDAL ARKITEKTO TEKNIKOA. Irati Galartza Arregi
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Nahi izanez gero azpialdeko bilagailua interneten sartuz dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke. Este documento ha sido firmado electrónicamente. Su autenticidad puede ser contrastada en internet mediante el siguiente localizador **https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/28/AAAA35FS9.yAP0**